

Esteban Garbisu Aranguren
Txulapain, Nafarroa (1911)

Aurkibidea

Biografia

Txulapaingo Beorburu herrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Uharte-Arakilgoa.

Zintak

TXU-001

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1985-01-01
- **Iraupena:** 12 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

TXU-004

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Data**: 1985-01-01
- **Iraupena**: 2 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Aranzadi elkarte

Pasarteak

1. "Lixua" nola egiten zuten

- **Erref**: TXU-001/001
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>"Lixua" (lixiba) nola egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Lixue iteko? lenik, e... pues... maineriak eta atorrak eta... gauzek, garbitzeko? da nik, bezperatik, e... beratu. Gero? pues, konportan sartu? te... arratsean? ure beroaki pues... gañetik bota, beño... konportan sartu biño len... ori, jabonaki, ederki dena... barratu maineriei te ator eta pantalonai ta denei? te gero? pues... azpien? izeten zuten pues...
 - Autsa?
 - Autse, ta andik pasten tzen ure ta gero... koloria artzen zuen? urek eta gero, aldien biño aldien, beroxeago biño irikitten asi gabe, aldiero, eztait, eztait eo... ore, sei edo zortzi edo... bedratzi edo amar... amar aldis, aldien biño aldien beroxago, bota... konportara, ta andik, e... bañerara, yoaten tzen, ure etaik. Gero? ore, ur ore berotu ëten, beis, ure? tä lixue-ei... bota, t'ola itten tzen, orduen, lixue, esaten giñuena.
 - Non guardatzen ziren konportak? handiak ziren?
 - Oiek? beh! tamañua?... izeten tzen... ttikia.
 - Horrelakoxeak?
 - Baa, badi-, aundiaguak baziren ta ttikiagokuak ere bai; eee... goi-, goitti, zabaltxa(g)o, beitti, beitti miartxago, izeten tziren. Ta ändik, pues, txorrota erraten giñiola, andik ure e... be, azpien pozal bat... utzi edo bañera bat eta, ore, bete artio? pues, bete edo erdie zeileik? beis, emendik artu? te beis berotu? te, tira beis.
 - Baina konportak ez zuen zulorik, ez?
 - Konportak? pai, bai... izeten tzuen kañu bet bezela! kañu bet eta andik, konportatik, andik? bañerara ioaten tzen.
 - (Carmen, berriemailearen erraina:) Ahí hay una, en la huerta...
 - 'Bañera' erraten zaio palanganari, ez?
 - Ez, bañera ez, bañera... ori biño aundiago zen, izeten tzen? pues no sé... pues igual, ogei litro edo geigo.
 - Baina ez da bainera gorputza bainatzekoa...
 - Ez-ez-ez, bañera... palangana bat bezela o ola balitze biño, biño aundie, e? biño.
 - Eta hori noiz arte egin da? duela zenbat urte kendu zen kostunbre hori?
 - Ori? izein ttu... beh! oitabortz urte o ola; orai duela? ez! geigo izäin ttu, ogeitamar izein ttu.

2. Animalien eritasunak

- **Erref:** TXU-001/002
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:03:22. **Bukatu:** 00:07:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Zomorroak

Laburpena:

<p>Animalien eritasunen inguruko azalpenak. Kaparrak.</p>

Transkripzioa

- Ardien gaitzak zein izaten dira? xomorroak izaten dituzte, ezta?
- Bai, izeten ttute, baña ni, pss, gutti ibil naiz, ardikin.
- Eta behiek izaten dute?
- Beie pai, zulderrak erraten di(o)un...-e, bultu atzuk? izatettu ta, gusano bat izetute, ta ore ataezkero? ya pues, bultua... desapareitzen da.
- Bulkua?
- Bulto (b)at, bultottuat, bultotto at erere... bueno, pikor bat balitze bezela beño, ta... an izeteut-, dute ta... zuldarra, ta an, barnen eoten da, ta ore... ya, aundi xamar itten denean, bera... ateatzen da.
- Eta hor egiten dute etxea, hor bizi dira...
- Bai, or, eztait, or ez, or... ori, eztakit nondik... tortzen den.
- Eta nolako handia da zuldarra?
- Pues zuldarra? pues-pues iten dira... badire, ze? pss... pues... izeten dire kasi... olaxeko bultoa badutena.
- Harrak bezalakoak dira?
- Bai-bai-bai, bai-bai.
- Eta zein lekutan egiten dira gehien bat? belarrien ondoan edo buztanaren azpian edo?
- Ez, ez-ez-ez, ori... tripe gañean, gañean; kostillen... kostille ta... bizkerran... or, izeten dëre.
- Eta sortu, nola sortzen dira?
- Ya! ori eztaitt (...); ni eztakitt, seguru aski... uliek e... piketu te... nik uste, or, ortik.
- Nik aditu dut ardiek izaten dituztela kaparrak eta batzuetan, kaparrak kendu eta, 'hollín' ematen zaiela zaurietan... Bai, biño... por ejemplo, bi mille o... bi mille edo... eztut erraten; bueno, bi mille ta piko, men dute, biño... berraun ardi baldin baittuzu, nondik? ze denbora biautzu, denei, beiretzeko zen(b)at ta, zen-nek duen...-a kaparra ta tzeñek eztuena? ta kaparra, gañera, pues izeten da primaberan, ya denbor ontan, eztu anbertze... ezta izeten. Kaparrak, nik e... neri're peatu... zaizkide, gazte-denboran; igual, pues, baakizu? ig(u)al, bordaldian ta ee, denbora artan, egun guzien igual ee, an aitzen giñen... igual, yorran ta ala ta, beño, primaberan da... oso peligrosoa, obrenean siesta ta guzie an, bazkaldu tä ernittin alumi? (?) ta, te orduen peatzen tzire.
- Bai, animalien artean ibilita...
- Bai, animeletan biño, oyek... e... animeliei ere pegatzen zaiote, biño... kanpöan! kanpoan, izaten dira, primaberan?... izeten da... oso peligrosoa izaten da.
- Eta pertsoneri non pegatzen zaizkie? buruan?
- Bien! pues, pues igual... buruen nola lepöan nola... maiz, maiz.
- Eta sartzen dira aski barnera?

- Ez, eeeh! sartu, peatzen die pixke-pixke-pixke eta ala!
 - Sentitzen da...
 - Bai...-etz! eta... piketzu? eztute... auniz piketzen biño, denboraki, pixke-pixke-pixket pues, pikor bat atra zaizute ta... txupetzen, txupetzen, aundi itten dëre.
 - Zer dira, zorriak baino handiagoak, ez?
 - Aundiaguak eta, badire!... bai, biño... eztire, zorria e da luzia(g)oköa, biño oyek? in dire... redondo samarrak, biño, izein ttute igual, e... berroitamar edo geigo atzapar, ta... peatzen dire, ya-ya.

3. Abereak ferratuta

- **Erref:** TXU-001/003
- **Iraupena:** 0:04:48. **Hasi:** 00:07:12. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Etxe guztietan egoten ziren abereak eta ferratu egiten ziren. Ferraren bat galduz gero, ferratzera eraman behar. Nola egiten zen ferratze-lana eta zenbat ferra jartzen zitzaizkien.</p>

Transkripzioa

- Gero... denbora artan? itxe guztietan... idiak eta izeiten baizien, ferraturik? itten zittuten...
 - Hara, horretara ailegatu nahi nuen.
 - Ta, gero... itxe guztietan... mandoa edo beorra edo izeiten tzen? ta oyek ere ferratza-ten zittute emen. Nik Iruñera aurrenean da ore? etzen autobus orduen, igual... yoan biar tzen? ta... bidian igual... galtzatze zuten ferra bat? eta, ara! bueltan... ferratu? te... biorra eta ola? artu, eamaten giñunak? eta, batek... lenik, beso at ferratu? ta... an, an... ferra... paatu? obenian, ya, gastatuik ezpazeon? galdu ziñuena? eaman, ezperen, pues... berrie patu? te... iltze batzëk, zeraki sartu? beso at e, ferratzen...
 - Iltze batekin?
 - Ez! zortzi iltze bakotxak, ferra bat... bakotxak bear zittuen; zortzi iltze guttienas. Gero? ori... besoa...
 ferratzen ziñuelik? bertzia, bertze. Gero? anka at, ero bertzean? lauek, ferratu te... ba an? obrenian Iruñera yoan bear? ta... an, pixkuat, arreglatui te... ezin? dena... loyez betetzen tziñen? ta dena... bakizu, Iruñen, arara yoan biar tziñuelik e... suertetzen bazen... ferra galtzera? baakizu, beti... dena... zikiñe, yoan biar ziñuen Iruñera. Onata eldu ziñeleik, ya itxera eldu ziñelik, ya etzen anbeste inporta biño, ara yoan bear tzelik? pues igual. Ta idiek, beis? potrua, izeten tzen, ferral...-tzeko, pues idiek? pues an... tranka batzuki? bueltaka ta bueltaka ta bueltaka... eaman? ta, e... besoa eta, an, denak lotu? ta, ayëk? an, ez tziñuen... ukitiar ere, ya, bere artean, ferratzaleak, berak itten zittuen biño, biorra baziñuen edo... zaldi edo... do mandoa o oyek? zeoye, zeorrek artu? te... irikiar tziñuen... ferrazaliak ferratzeko.
 - Orduan, aiseago ferratzen zen behia mandoa baino...
 - Ba(i)! klaro!
 - Mandoa sujetatu behar zen...
 - Sujetuik? e... anka betik artute!... ikasi nuen.

- Min egiten zitzaien?
- Beh!
- Hori gogorra dute, ezta?
- Bai, ori bai, ori, azkazala, klaro!
- Ez dute min handirik nabaritzen...
- Ez, mini(k) etzuten bate, arek; por ejemplo pues, ferratu te... denbora ona eiten badu? pues-pues, obrenean, bi zentimetro geigo, kendiar tzioten... azazkala, berri-, berriz ferra paratzeko.
- Zerekin?
- Ah, pues llana bat izeten tzen, ola...
- 'Llana'? erramienta bat?
- Llana... erramienta bat, bai, llana esaten zioten; bai, orai ere badire. Emen, lengo aldien emen, beiei azazkalak pixkuat mozteko, ori, e... Auzeko... ori? ekar tzun.
- Haiendako ferrak dira guretako zapatak bezala, ezta?
- Klaro! klaro, klaro...

4. Beorburun ere San Juan eta San Antonen arteko nahasmena ageri

- **Erref:** TXU-004/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>Garai batean egiten ziren bedeinkazioen inguruko kontuak.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com